

Ibaitik itsasora



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Urriaren 4an Iruñean egin zen manifa izugarria izan zen. Momentu oro, nire irudipena izan zen hiriko kaleak betetzen genituen pertsonok adin, jatorri eta pentsamolde ezberdinetakoak ginela. Gizateriaren parte izatearen sentimenak desberdintasun guztiak gainditzin zituen aldi horietakoa izan zen.

Euskal aktibistek Palestinaren alde egin duten borrokan, segur aski, bide luze eta nekagarria izan dute mobilizazio hau lortu arte. Agian beranduegi, dagoeneko 70.000 pertsona hil direlako genozidio programatu batean, baina nolabait herri gisa kolektiboki erantzuteko dugun gaitasuna berpiztu egin dute, eta berpizte horrek gizarte bezala duintzen gaituela uste dut.

Gure herriaren historiak erakutsi digu aldaketa sakonak ez direla lortzen inertziaz, baizik eta pertsonen ahaleginaz eta esku-hartze aktiboaz, askotan elkar eragiten duten talde ezberdinetako kide izatearen sentimendua alde batera utzita.

Zorte handia dut, nire lagunaren artean militante amorratuak eta aktibista ne-

Euskal gizarteak iratzarri dute; protesta nork deitzen duen inork ez galdetzea eta elkartasuna beste gauza guztien gainetik kokatzea lortu dute

kaezinak daudelako. Egunero ezintasuna, beldurra eta nekea pairatzen dituzte, boterearen eta gizatasunik ezaren alde ilunaren errealitatekrudelena ezagutzen dutelako.

Agian, ez dute izan aukerarik beren lan nekaezinarekin lortu duten aldaketa ikusteko, baina izugarria izan da. Euskal gizarteak iratzarri dute; protesta nork deitzen duen inork ez galdetzea eta elkartasuna beste gauza guztien gainetik kokatzea lortu dute.

Duela egun batzuk hiru emakume aktibista paseatzen ari ziren Gasteizko erdialdeko kaleetan, lepotik zintzilik kartel batzuk zituztela, sarraskitutako haur palestinarraren irudiekin. Lasai zihoazen, elkarrekin hizketan; haiekin gurutzatzen ziren ibiltariak kartelei begira zeuden, jakin-mina, zirrara eta konplizitatea erakutsiz. Hannah Arendt-en gogoetaren arabera, pertsonen ekintza politikoa askatasunaren funtsa da. Eta hiru emakume horien ekintza politikoa ausarta iruditu zitzaidan benetan.

Ekintza politikoei dominazio eta botere gehiegikeria sisteman higadura lortzen dute. Urtetan amestu nuen iraultza agian ez da lortuko, baina behetik, izenik gabekoetatik, boterearen erresistentzia eta birkonfigurazio prozesutik, agian, errealitatea aldatuko dugu.

Bitartean, jarrai dezagun gure gobernuari Israeli ezarri ez dizkieten zigorrak eskatzen. Jarrai dezagun kaleetan sionismoarekiko mespretxua erakusten. Egin diezaiegun boikota bere negozioei, eta gogora dezagun Palestinak ibaitik libre izan behar duela itsasoraino. ●

Nafarroako
Bertsolari Txapelketa
2025

Lehenengo fasea
Urriak 18, larunbata
IRURITA
17:30ean, Gizarte Bilgunean

www.bertsosarrerak.eus

Amaia Elizagoien Varella
Endika Legarra Nuin
Josu Sanjurjo Alzuri
Julen Zelaia Iriarte
Patxi Castillo Graciarena
Xabat Illarregi Marzol
Gai-jartzailea:
Ainhoa Larretxea Agirre



Laguntzailea

